

Euskal herrietan komentuz komentu

Erriberriko fraideak

Como en otros lares, también entre nosotros las Casas religiosas (llámense Conventos, Monasterios o Residencias) han conocido historias y avatares muy diversos, y son herencia de un pasado más o menos largo. El Convento franciscano de Olite presenta una de esas historias de "larga duración", en que se han sucedido formas de vida muy tradicionales e iniciativas novedosas.

Erriberriko (Olite) komentu hau bertako erret gaztelutik begiratzen duenak berehala sumatzen du aurrean duen eraikin hori, itxura guztiz, ez dela urruneko mendeetako emaitza: hor ez dago erromanikorik, ezta gotikorik ere, eta, hala ere, erromanikoa gaingitu eta gotikoa garatzen ari zen hamarkadetako Fraideartea da Erriberri lehenik bizi izandakoa (1243).

Garai eta aldarte ezberdinak

Erriberriko komentua Nafarroako komentu handien artean zenbatu behar da; sortzez goiztarra izan zen, eta Erriberako atari horretatik batez ere hegoalderantz bidali zituen bere predikari eta fraide eskaleak. XIII. mendetik hona bizi-segida iraunkorra izan du, baina ez gerrate eta ezbeharrik ezagutu gabe. Eta ezinbesteko esklaustrazio-urteetan bere fraide zahar edo gaixo "beneragarriak" bizi izan ziren bertan.

Lehen komentu-eraikina hurrengo mendean Joana II.a Erreginak Erret Jauregirantz hurbilduz berreraiki zuen (1345), eta XVI. ean, Nafarroaren konkista-ondoko zigor-edo segurtasun-politikak (1512...) zuzenean harrapatu zuen Erriberriko komentu hau: Cisneros-en mandatuz zeharo eraitsi ez bazuten ere, bereak eta bost jasan behar izan zituen. Horregatik ere, 12 lagu-

neko fraidearte txikia aurkitzen dugun hamarkada batzuk geroago (1585).

Komentuz kanpoko inguruabarrek bezala Etxe barruko erabakiek moldatu zuten fraidearte honen bizitza, betiere Nafarroatik kanpoko Probintzia erlijiosoan mende zegoela (Aragoikoan lehenengo, eta Burgoskoan gero). Koroaren politika erlijiosoek zerikusi hurbila izan zuten joan-etorri horietan.

Esklaustrazio-aurreko azken loraldia barnealdakuntza bati lotuta ageri zaigu XVIII. mendean, komentu arrunta zena Misiolari-Kolegio bihurtu baitzen 1745ean, horrek esan nahi zuen guztiarekin: bizimodu hertsia goa, predikarien prestakuntza arautua, pastoral-lan berezitua. 18 fraide jarri ziren elkarrekin bizitzen Senitarte bertuan. Arautegi berriarekin ere, komentuak Burgosko Probintzialaren mende jarraitu zuen.

Urte gutxietara, komentu-eraikin berria jasotzea izan zen garrantzizko bigarren erabakia. Zaharra oso hondaturik zegoela eta, zaharberritzen ibili baino berria egitea egokiago zela uste izan zen. Gaur egun ikusten dugun eraikin handi zabal hori orduko lanen gain eta inguruan XX. mendean osatu da.

Arantzauko Probintzian (1880...)

Kasik mende beteko gorabehera larrien ondo-



ren (1794-1880), 1880an Arantzazuko Probintzia berrituko (orduan "Kantabria" deitzen zeneko) fraideei eman zitzaien komentua eta berak izan ziren bertako Fraidearte erlijiosoak osatu zutenak. Horrek ondorio ezagunak izan zituen Erriberriko Etxe honetan.

Orduan, bere komentu izan berrituekin Arantzazuko Barrutia gora zetorren, bai Penintsulan eta bai Euskal Herrian. Hori horrela, halako historia zuen Nafarroako komentu frantziskotar honek Etxean bertako zereginak eta Arantzazu Probintziakoak ere hartu beharko zituen laster bere gain.

Komentu honetan bildu den Fraidearte handiagatik eta Probintzia erlijiosoan bete dituen zereginengatik, Erriberriko hau, Zarautz eta Arantzazurekin batera, Etxe behinenetakoa izan da frantziskotarrantzat. Bertan jarri zen lehendabizi Probintziako Teologi Ikastegia (1884-1928) eta Filosofiakoa gero (1928-1976), eta berau izan da, denbora luzez (1880-1976), Nafarroan frantziskotarreko izandako komentu bakarra, Arantzazuko Probintziako apaizgai gazte guztiak Nafarroa ezagutzeko aukera eman diena.

Fraidearteko bizilagunen kopurua aldatuz joan da, noski, Teologia nahiz Filosofiako ikasle-kopuruaren arabera batik bat. 1881ean, 22 ziren fraideak, baina Gerra Zibilaren ostean oso gora egin zuen horrek, 1963ean 111 bizilagun izateraino. Ikasleak Ikastegi hau utzi zutenetik (1976), fraidetan komentu arrunten neurrietara etorri da, eta orain zazpi fraide dira bertan bizi direnak.

Fraideen jarduera-eremuak mota ezberdinetakoak izan dira Erriberriko Etxe honetan: a)

Fraide ikasle gazteen hezkuntza, b) Nafarroako herri-misioak, c) Inguruko herrietako ohizko predikua, d) Nafarroako Hirugarren Ordena frantziskotarra^{ofm}, e) Zenbait ekimen sozial eta kultural.

Misiolari, aitor-entzule eta sermolariak bereziki Erriberan aritu badira ere, Nafarroako Erdialdean nahiz Mendialdean ere ibili izan dira, bertan zeuden fraide euskaldunen gaitasunen arabera, Etxean bertako elizako elizkizun eta sakramentu-bizitza ahaztu gabe.

1883-1960. urteetan, Nafarroako Hirugarren Ordenak goraldi ederra ezagutu zuen, eta frantziskotarre bezala kaputxinoek ere ahalegin gogotsua egin zuten komentuetan ez ezik parroketan ere, kristauak frantziskotar anaiarte horietara bil zitezten. Adibidez, Erriberriko zaindutako Senitarteetan 681 lagunek egin zuen profesia Hirugarren Ordenan (1884-1893), Leon XIII.aren deia erantzunda. Zoritxarrez, inguruetan sortutako Senitarte Hirugarrenen artean ez zuten izan komentutik aldizkakotasun finko egindako bisitarik eta horrek eman behar zuen heziketa iraunkorrik. 1966an Erriberriko komentuak 1.210 hirugarren zituen bere ardura-pean, 102 Senitartetan banatuta.

Kontzilioaz geroztik eta apaiz diozesitarrek bakandu ahala, frantziskotarren komentu honetatik eskaini dira Erreberri bertan eta inguruko zenbait parrokiatan eliz zerbitzuak, Erretore nahiz apaiz laguntzaile bezala.

Joseba Intxausti

Galderak eta oharra: 610273580